

KANALAK

Gure aplikazioa jendearengana iristeko, hainbat kanal erabiliko ditugu. Kanalak dira, azken finean, jendeak aplikazioa ezagutzeko, erabiltzeko eta klaseak jasotzeko moduak.



Lehenik, komunikazio-kanalak erabiliko ditugu aplikazioa ezagutarazteko. Horretarako, gehien erabiltzen diren sare sozialak erabiliko ditugu, hala nola Instagram, TikTok edo X. Sare sozial hauen bidez azalduko dugu aplikazioa zertarako den, nola funtzionatzen duen eta zein onura dituen. Gainera, publizitate digitala erabiliko dugu jende gehiagorengana heltzeko.

Bigarrenik, banaketa-kanalak izango ditugu, hau da, erabiltzaileek aplikazioa non eta nola lortuko duten. Gure zerbitzua guztiz digitala denez, aplikazioa App Store eta Play Store bidez deskargatu ahal izango da. Horrez gain, webgune baten bidez ere informazioa eta sarbidea eskainiko da.

Azkenik, salmenta eta zerbitzua emateko kanalak izango ditugu. Online klaseak Zoom, Google Meet edo antzeko plataformen bidez emango dira. Kanal hauen bidez, ikasleek zuzenean jasoko dituzte klaseak, azalpenak, material osagarria eta mezu bidezko laguntza.

Laburbilduz, gure kanalak zuzenak izango dira, internet bidezkoak, eta bitartekaririk gabe. Horrela, ikasleek modu errazean ezagutu, erabili eta aprobetxatu ahal izango dute aplikazioa.